

noaua



"ESKUZABALIK HARTUKO DITUGU ODOL-EMAILE BERRIAK"

Usurbilgo Odol-Emaien Elkarteak erakusketa bat zabalduko du Sutegin / 06-07 or.

ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

"Elkargunearen proiektua martxan dela aldarrikatzera etorri gara" / 10




NOAUA

Mirotzen omenezko txapelketan fin aritu ziren Usurbilgo eskubaloit taldeak / 18



NOAUA

Jai giroan joan zen herriko saltokien aldeko San Silbestre lasterketa / 20



NOAUA

Igande honetan 'Boo Kwa eta museoaren lapurreta' filma Sutegin ikusgai / 26

ANTONIO URRUZOLA AROSZTEGIA

943 376 415
687 845 599

Asteasuain Industrialdea, 3.



**ATXEGA
JAUREGIA**
JATETXEA

EGUNEKO MENUA
EGUNEKO PLATERA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
PINTXOAK

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

5. URTEURRENA!

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

SALEROSKETA & ALOKAIKUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



noaua
jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

X noaua

www.noaua.eus

Beste sute bat erraustegian

Sutea piztu zen Zubietako erraustegian abenduaren 27an. Euskadiko Suhiltzaileen Elkargoak sare sozialen bidez albiste honi atxikitako irudia zabaldu zuen. Donostiako suhiltzaileek berri eman zutenenez, "ordu bat egon gara sutea itzaltzen eta materiala hozten".

Kea hondakinen deskarga guneetako batean

Hedabide hainbatek jasotakoaren arabera, Gipuzkoako

Hondakinen Kontsurtzioaren (GHK) esanetan, kea ikusi zuten mankomunitateetik helden den hondakinen deskarga guneetako batean. GHK-tik mankomunitateei oroitarazi zieten erraustegian baimenduak ez dauden materialak sartzeko debekuabetetzearengarantzia.

Sute honen aurrean, Guraso Setik sare sozialen bidez salatu zutenenez, beste behin, "Zubietako erraustegia hondakin arriskutsuen erraustegian bihurtu dute".



Abenduaren 27an gertatu zen ezbeharra. Argazkia Euskadiko Suhiltzaileena da.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo erdigunean

Urtarrilaren 9tik aurrera, garbigune mugikorra Usurbilgo erdigunean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urtarrilaren 16an osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

Ate irekien eguna Santueneko Gure Txikiak ludotekan

Larunbat honetarako, urtarrilaren 11rako antolatu du hitzordu hau Santuenea K.E.-k, goiz partean, 11:00-13:00 artean, Santuenea 16an. "Etorzkeoa bazara edo informazio gehiago nahi baduzu, idatzi mezu bat santueneake@gmail.com helbidera", ohartarazi dute.

Urtarrilaren 24an, Xake tailerra Sutegin

Sutegi udal liburutegiak antolaturiko saioa urtarrilaren 24an egingo dute 17:30etan, liburutegian bertan, 6 urtetik gorako haurrentzat. "Saio honetan xakearen oinarriak erakutsi edo/eta errepatatuko dira, eta torneotxo bat egingo dugu denon artean", iragarri dute antolatzaileek.

Sutegi udal liburutegia ohiko martxara itzuli da

Aste honetan ohiko martxara itzuli da Sutegi udal liburutegia. Astelehenetik larunbatera goizez, 10:00-13:00 artean irekiko dute berriz eta astelehenetik ostiralera, arratsaldez, 16:00-19:30 artean. Informazio gehiago: biblioteka@usurbil.eu / 943 360 693 / 688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE


Adimen Artifiziala (AA) eta etika

Azkenaldi honetan oso modan dagoen gaia da Adimen Artifiziala (AA). Esparru guztietan sartzen ari dela esan dezakegu. 1950ean eman zituen lehen pausuk eta izena ere orduan jarri zioten. Nola definitu AA? Ordenagailu programa edo makina batek pentsatzeko eta ikasteko duen trebetasuna da. Ordenagailu edo robot batek arazo bat konpontzen duenean, adimentsua ematen du eta da neurri batean. Baina ez da adimen naturala, artifiziala baizik.

Zientziaren aurrerapenak betidanik kode etiko baten barruan ibili dira beti. Adibidez, sendagileek egiten duten Hipokratesen zina, duela 2.500 urtekoa da. Orduan ere, sendagile baten konpromisoa gaixoarene osasuna zaintzea eta hobetzea zen interes pertsonal guztien aurretik. Kode etiko horrek argitzen eta bideratzen du medikuntza munduan lortu diren aurrerapen guztiak. Eta hori da AArekin lortu nahi dena.

Aurrerapen zientifikoak erlijioaren dogmatismo itsuak oztopatu ditu askotan, hots, Galileok bere teoria defendatzeagatik jasan behar izan zuen eraso lotsagarria. Zorionez bere jakinduriak irabazi zuen eta zientziak aurrerapauso handiak eman zituen.

Etikaren parte bati deontologia deitzen zaio ("deon-deontos" betebeharra eta "logia"



"Onerako zein txarrerako, gizarteari begiratzeko erakuslehoi apartak dira festak".

tratatu), hau da, lan esparru bakoitzak bete behar duen arau multzoa. Betebehar horiek ez ziren aintzakotzat hartu, adibidez, lehen bonba atomikoaren inguruan gertatu zenarekin. Oppenheimer bere sortzaileak gutun bat bidali zion Truman presidenteari eskatuz ez zezatela bota lehergailu hura. Ez zioten kasurik egin eta ondorioak ezagunak dira: 300.000 hildako Hiroshima eta Nagasaki. Negargarrikeria horiek saihestu nahi dira aurrerapen zientifikoekin eta konkretuki, AARI kode etiko bat jarriaz.

Adimen Artifizialaren erabileraren esparruak ugari dira, izan ere hain baliagarria bihurtu da. Medikuntzan: datu medikoak analizatzeko, erresonantzia magnetikoetako irudiak aztertzeke, diagnostiko zehatzagoak

"ADIMEN ARTIFIZIALAK ERRONKA GALANTAK DAKARTZA GIZARTEARENTZAT"

egiteko. Garraioan: ibilgailu automatikoak garatzeko. Industrian: lantokiko segurtasuna eta eraginkortasuna hobetzeko. Gizarte sareen bidez giza loturak ahalbidetzen ditu. Lanak automatizatuz, lan eraginkortasuna areagotu du.

Adimen Artifiziala garatzeak onura bakarrik ez dakar, bai erronka eta arrisku galantak ere gizartearentzat. Horregatik jende anitzaren ustez leialtasunez eta egiaz aztertu behar den kode etiko bat behar dugu. Lan hau gobernuek, enpresek eta erabiltzaileek egin behar dute. Jakina, "berez zientziak ez luke mugarik izan behar, baina aplikazioak oso gertutik zaindu behar ditugu". Eta horren ardura gizartearena eta ez zientzialariena da".

Frantzisko Aita Santuak ere badu zertxobait esateko Adimen Artifizialaren gainean. Honela dio: "Adimen Artifizialaren garai honetan, ezin dugu ahantzi hau: gizakia salbatzeko bi gauza direla agian beharrezkoenak: poesia eta maitasuna". Guztiz bat nator berarekin.

Garraio zerbitzuak doan, 12 urtera artekoentzat

Euskadiko Garraio Agintaritzak hartutako erabakia 2025ean sartuko da indarrean. Horretarako, haien guraso edo tutoreek eska ditzakete jada "Bat, Barik eta Mugiren arreta-bulegoetan, hilabete horren amaieratik otsailaren hasierara lurraldeka ezarriko den doakotasuna baliatzeko behar diren txartel pertsonalizatuak". Jada txartela duten adingabeek ez dute inolako tramiterik egin behar. Bestalde, orain arte indarrean ziren garraio publikoko %50eko hobariak mantentzea erabaki dute beste sei hilabetez.

Datozen bisita gidatuak

Hemen dituzue, urtarrileko hitzorduak:

Urtarrilak 11, larunbata

11:00-12:15 Museo irekia bisita gidatua.

Urtarrilak 25, larunbata

11:00-12:15 Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua.

Urtarrilak 29, asteazkena

10:00-11:00 Zero zabor bisita gidatua.

Urtarrilak 31, ostirala

10:00-11:15 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Informazio gehiago eta izen-ematea:

650usurbilbizi.eus



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Joan Mari Torrealdai beka deialdiko proiektu irabazlearen egileak egitasmoaren sustatzaileekin batera.

EHZ jaialdiak jaso du J.M. Torrealdai beka

"Euskal kultura azterketa gaur" hizpide zuen Usurbilgo Udalak eta Jakín Fundazioak sustaturiko Joan Mari Torrealdai bekaren bigarren deialdiko proiektu irabazlea "EHZ 1996-2026: herri bat zuzenean" izan da, urte amaieran agerraldi bidez jakinarazi zutenez.

Epaimahaiaren esanetan, "ikusten zen mamia bazegoela" eta gainera, erabat bat dator abiapuntutik Torrealdai ikerketaren bidez sustatzen zuen "izpiritu eragilearekin". 14.000 euro irabazi ditu EHZ-ri lotutako ikerlanak. Bolondres ibilitakoekin egin asmo dute ikerlana. Egileek 18 hilabete epealdia izango dute orain, egitasmoa garatzeko. Tresna gisa erabili nahi dute EHZ-ren transmisioan eragiteko.

"Guretzat ohorea da"

Esker oneko agertu ziren proiektu sarituaren egileak, Joana Barbier eta Aitor Servier. "Torrealdai beka jasotzea guretzat ohorea da". Erabat lagungarria izango zaiela gaineratu zuen Barbierrek. "Jakinez festibalak 30 urte bete ditzuela 2026an, gogoeta

fase horretan lagunduko gaitu ikerketa lan horretan sakontzeko". Horregatik, beka deialdia irabazi izanak "motibatzen du. Ekarpen handia da guretzat halako sari bat jasotzea". Haien proiektuarekin, "euskal musikagintzak azken 35 urteotan izandako bilakaera" aztertuko dute. "Ekosistema oso bat aztertzeaz ari gara, guk musikagintza eta kulturagintza ez ditugulako soilik ulertzen oholta gainean dauden musikariekin, arlo horietan lanean ari diren profesionalekin edo soilik merkatu ikuspegi batetik. Euskal musikagintzak, euskal kulturagintzak sortzaileak, eragileak, zaleak, boluntarioak behar ditu eta uste dugu EHZ-ko esperientzia, badela esperientzia bat zeinetatik irakaspen eta ondorio mamitsuak atera

daitezkeen", azaldu zuen Servierrek. Emaidza Euskal Herri osoan hedatzeko plangintza ere zehaztua dute, "guretzat oso naturalak diren espazioetan, kulturagintzaren, herri mugimenduaren espazioetan, hortik gatzelako eta hori dugulako helburu. Baina era berean, ikerketa honen muina izanen da, EHZ-n egiten ari garen gogoeta elikatzea". Prozesu horretan ez dute soilik iraganera begiratu nahi, "gure

"IKERKETA HONEN MUINA IZANEN DA, EHZ JAIALDIAN EGITEN ARI GAREN GOGOETA ELIKATZEA"

helburua bada oraingo eta biharko korapiloak askatzea, aztertuta zerk balio izan duen orain arte, zer berrikusi nahiko genukeen...". Ildo horretatik, jakinik, "Torrealdai oso ongi zekiela eta kokatu zuela bere lanetan kulturagintza ezin zela testuinguru sozialetik eta kulturaletik aparte ulertu" eta jakinik aldaketa azkarrak ematen ari direla, "aztertuko dugu zeintzuk izan ziren garai bateko galderak eta haiei emandako erantzunak".

Ikerketa sustraitua

Egileak zoriontzarekin batera, poztasuna agertu zuten sustatzaileek (Udalak eta Jakín Fundazioak) lan irabazlearekin baita deialdi honen harrearekin ere. Denera, lau proposamen jaso dituzte, guztien maila goraiatu zuten. Jakín fundazioko lehendakari Lorea Agirrerren esanetan, "aurten go proiektu irabazlea, bete-betean sartzen da ikerketa sustraituaren kontzeptu honetan, Torrealdai bere bizitzan egin zuen lanaren lerro horretan". Elkartune berriak eraikitze baliagarritzat jo zuen. Ildo beretik mintzatu zen Agurtzane Solaberrieta Mesa, Usurbilgo alkatea, "Beka honen gaia, Jakinek berak ekarri zuen, ohi bezala, gure ustez ezin hobekiago ekarria. Izan ere, laster beteko direlako 50 urte Joan Mari Torrealdai bere liburugintza azterketa abian jarri zuela, ideia argi batekin; liburugintza aztertu, euskal kulturaren eta gizartearen egoeraz, nolakotasunaz ondorioak atera eta horren baitako kultur politikak irudikatu eta abian jartzeko". Deialdi aurkeztutako proiektuek, alkatearen iritziz, "iruditzen zait ederki erreparatu diotela ildo horri, azken batean, helburua badelako etorkizuneko kultur politikak ontzea". Solaberrieta zuzendatzaileak "kulturagintzak eta oro har euskal herriagintzak ezinbestekoa du hausnarketa hori" etorkizunera begira.



Agustina Arizti, Mari Jose Kortak, Marisol Unanue eta Gero Tena, Usurbilgo Odol-Emaileen Elkartearen kideak.

"Sekulakoa egiten da odola ematen duzunean"

"Odola bizitza da eta hainbat bizitza salbatzen ditu" eta horretan aritu dira fin asko auzolanean eta dihardu, 50 urte bete dituen Usurbilgo Odol-Emaileen Elkartek. Agurtu berri dugun 2024an bete dute mende erdia, nahiz urte hasiera honetan oroituko duten urtemuga borobil hau.

Izan ere, bi hilean behin egoitzen den hilaren 13ko odola emateko egunean bertan, erakusketatxo bat ikusgai jarriko dute Sutegiko erakuslehoan bi astez. "Odolaren historia, odolak emalearen gainetik gaixoarengana egiten duen bidea eta etorkizuneko berrikuntzak, erronkak eta Usurbilgo ordezkariaren egoera" hizpide izango dituzte, kultur-etxean kokatuko dituzten paneletan. Etorkizuneko berrikuntzen artean da, hain zuzen, odolaz gain plasma ematearena. "Ebakuntzetan geroz eta gehiago erabiltzen da", berri eman digute lerrotako protagonistek. Plasma ez

dute, ordea, Usurbilen jasotzen. Donostiara joaten behar izaten da. "Usurbildik joaten dira batzuk", berri eman digute. Aipatu Sutegiko erakusketako panelek QR kode bana izango dute, xehetasun gehiago jaso nahi dituenarentzat.

Sortzaileak

Bi aste erakusketa hau, bazkari batekin borobilduko dute urtarrilaren 26an, aurten Artzabalaren. Otorduan zehar, urteroko oroigarriak banatuko zaizkie odola 25, 40 eta 60 aldiz eman dutenei. Zortzi izango dira aurtengo herrikide omenduak. Baina kide gehiago ere oroituko eta eskertuko

nahi dituzte lerroen bidez, elkartearen 50. urtemuga honetan, bilgunearen sortzaileak hain zuzen; Yuste Errekondo, Miren Errekondo, Agate Errekondo, Mertxe Aizpurua eta Kolumba Aginaga. Urte askoan ordezkari gisa aritu da baita Patxi Arruti eta haren bidez

"1974. URTEAN ODOL-EMATE BAKARRA ANTOLATU ZUTEN. 25 LAGUNEK EMAN ZUTEN ODOLA"

jakin genuen, Benantxio Otaegi Usurbilgo apaiz ohiak ere bilgunen honen abiatzean parte hartu zuela. Haietatik bi izan ziren, ordea, aitzindariak. "Yuste eta Miren Errekondo ahizpak Donostiara joaten ziren odola ematera. Han esan zieten, *zergatik ez zarete zuek hasten Usurbilen?*". Esan eta egin. Lehenengo urte hartan, 1974an, odol-emate bakarra antolatu zuten. Estreinako hitzordu hartan, 25 lagunek eman zuten odola. Horrekin batera, diru bilketa ekin zioten. "Dirurik ez eta enprestarta joaten ziren diru eske. Batzuk ematen zuten, beste batzuk ez". Odol-emate egunetarako jatekoa ere haiek sukaldatzen zuten.

Hiru egoitza

50 urteotan hiru egoitza izan ditu odol-emateak; Gaztelekuaren kokagunea, osasun-etxea eta covid19ak eragindako 2020ko osasun krisialditik Udaregi ikastola. Ikastolan daudenetik, gainera odola emateko txandaren ordu zehatza aurrez jasotzen da, "hartara jendeak gutxiago itxaron behar izaten du. Batzuk lehen ordu bete edo gehiago itxaron behar izaten zuten", adierazi digute, egun, elkartearen dinamizazio arduratzen diren eta 2022ko jaietan hasieran jasotako herri aitortza poztasun handiz oroitzen duten Agustina Ariztik, Mari Jose Kortak, Gero Tenak eta Marisol Unanuek. Agustinak oroitari digu, nola lehen, banan-bana deitzen zieten telefonoz hitzorduez ohartarazteko.

Eragile berriak behar

Hurbilekoengatik edota lantokian hasi ziren odola ematen aipatu bilguneko kideok. Elkarrearen sustatzaile izatera igaro ziren, aurrekoei lekukoa hartu zieten, edota odola eman ezinik geratu eta beste modu batean ekarpena egiteko borondateak bultzatuta hasi zirela auzolanean azaldu di-



Usurbilgo Odol-Emailen Elkarteko kideak errelebo beharrean dira.

→ gute. Ordutik hona, argi esan digute, protokoloak nola zorroztu diren. "Gehiago aztertzen da emandako odola". Etor-kizunerako bi erronka nagusi dituzte buruan; batetik, erreleboarena. "Uzteko garaian gauden", oroitarazi digute. Kide berriak hurbiltzeko deia egin dute. Urteko sei odol-emateak antolatu, gainerako ordezkariekin urteroko bilkura egin edota udal dirulaguntzen trami-teak dira egin beharko liratekeen lanak. Hitzorduotarako jasotako laguntza eta laguntzail-ek eskertu nahi dituzte lerroon bidez; Alkartasuna kooperatiba, Aizpurua okindegia, Artzabal jatetxea eta baita Usurbilgo Udala ere.

Emaille berrien bila

Bestalde, azken urteotan odol-emaille kopuruan izandako murrizketa irauli nahi dute. Odola ematera deitu dute. "Es-kuzabalik hartuko ditugu emai-

le berriak", adierazi diote NOAUA'ri. Gogorazi digute-nez, "sekulakoa egiten da odola ematen duzunean. Falta duzunean jabetzen zara. Gauza handia da ospitalean egon, odola behar izan eta hantxe izatea". Horrez gain, "oso zurea den zerbait ematen duzu" eta horrek ematen duen a-se-tasuna azpimarratu dute eta norbera ere nola dagoen ikus-teko aukera ederra izaten dela, gainera. "Jasotako odola az-tertzerakoan arazoren bat egonez gero, emaileri jakinarazten zaio".

"SEKULAKOA EGITEN DA ODOLA EMATEN DUZUNEAN. FALTA DUZUNEAN JABETZEN ZARA"

2011. urtera arte 10.000 odol emate izan ziren Usurbilen. Iaz arte, mendeerdihonetan, 13.400 inguru. Beherakada izan da azken urteotan baina "ez Usurbilen soilik, murrizketa orokorra da". Iaz, adibidez, bataz bestekotikurrundudirelazioten. Izan ere, "Usurbilen 40 emaille beharko lirateke saio bakoitzean, urtean 240. 2024an urruti ibili gara, nahiz bi hilabeteetan bat-taz bestekoa gainditu dugun". Zer ikusirik ez, esaterako, 90. hamarkadako datuekin. "Ur-teren batean 400 emanaldi izan ziren. 300etik gora izatea zen

"URTEREN BATEAN 400 EMANALDI IZAN ZIREN. 300ETIK GORA IZATEA ZEN OHIKOENA"

ohikoena". Halere, Gipuzkoako ordezkari-tatik "Usurbil herri emaille ona izan dela" adierazi izan diete beti herriko elkarte-koei. Emaille izan direnei eta direnei eskerrak helarazi nahi dizkiete lerroon bidez, herri-ki-de berriak odola ematera ani-matzearekin batera. Hemen, azken hamarkadako odol-ema-teen zenbakiak:

- 2011: 266.
- 2012: 340.
- 2014: 311.
- 2016: 293.
- 2017: 253.
- 2018: 253.
- 2019: 227.
- 2020: 212.
- 2021: 205.
- 2022: 218.
- 2023: 204.
- 2024: 183 emate. 125 emai-le, 5 emaille berri.

Odol-emailleek 50 urte

Urtarrilak 13, astelehena

• **16:30-20:10** Odol-ematea Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira. Infor-mazio gehiagorako: donan-tesdesangre.eus

Urtarrilak 13-26

• Erakusketa Sutegin.

Urtarrilak 26, igandea

• **14:00** Bazkaria eta odol-emai-leentzako oroigarrien bana-keta Artzabalen. Izen-ematea, urtarrilaren 20a baino lehen, bi telefono zenbakiotako ba-tean: 943 363 102 (Agustina) / 619 125 644 (Mari Jose). Pre-zioa: 32 euro.

Antolatzailea: Usurbilgo Odol-Emailen Elkarte.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

TXAPELDUN
ARDANGELA

EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITAR TEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna lurra 2, 943 49 88 83

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



Alokairu sozialeko udal etxebizitzetxei lotutako bi erabaki hartu zituen udalbatzak urteko azken osoko bilkuran.

Bi hizpide, urteko azken udalbatzarrean

Alokairu sozialeko udal etxebizitzak eta 2025. urteko dirulaguntzak hartu zituen ahotan udalbatzak iragan urteko azken osoko bilkuran. Bi gai hauei buruzko zenbait erabaki hartu zituzten udal ordezkariak abenduaren 19ko saioan.

Alokairu sozialeko udal etxebizitzak esleipena arautzen duen ordenantza lau hobe-kuntza txertatzea onartu zuen hasieraz udalbatzak, abenduaren 19ko osoko bilkuran. Gogoan izan, puntuazio bidez hautatzen dira alokairu sozialeko etxebizitzetako errentariak. Hainbat faktore hartzen dira aintzat, baina etorkizuneari, beste bi aldagai gehiago ere kontuan hartuko dituzte bizilekuak esleitzerakoan; logela kopurua eta bizikidetzaren unitatea zenbatekoa den. Honenbestez, logela bakarreko pisuak, pertsona bat edo biko bizikidetzaren unitateentzat

izango dira, bi logelakoak 1-3 arteko bizikidetzaren unitateentzat eta hiru logelakoak 3-6 arteko bizikidetzaren unitateentzat.

Berrikuntza hau txertatzeko erabakia, udal ordenantza horrek zuen akats bat zuzentzeko ere baliatuko dute. Hain zuzen, Txaramunto kalea 2ko alokairu sozialeko pisuetako batek bi logela dituela zehaztua du ordenantzak, logela bakarrekoa da, ordea. Hirugarrenik, etxebizitzari lotutako bestelako "arautegi sektorialetara" egokitzeko baliatuko dute baita ordenantza hau; "bizikidetzaren unitate errentariaren urteko diru-sarreraren

arabera aplikatuko diren ehunekoak eguneratu dira dokumentu berrian". Azkenik, bizilekuak esleitzeko aplikatzen den baremazioan itxarote-zerrendan daraman denbora ere puntuagarria izango da. Gehiago osoz onartu ziren

"BESTE BI ALDAGAI GEHIAGO ERE KONTUAN HARTUKO DITUZTE BIZILEKUOK ESLEITZERAKOAN"

aldaketok EHBilduren eta PSE-ren udal ordezkarien babesarekin. EAJ udal taldeko ordezkariak abstenitu egin ziren, zalantza agertu zutelako itxarote-zerrendako antzintasuna kontuan hartzeko proposamenarekiko. Udal gobernu taldeak adierazi zuten, antzintasuna kontuan hartuko da, puntuazio altuena dutenen kasuan, behar handiena duten herritarren artean.

Tramitazioa errazteko

19 bizileku ditu Udalak jabetzan; hamabi Gernika ibilbidea 13an eta beste zazpi Txaramunto kalea 2 zenbakian. Bizilekuok lehen, zozketa bidez esleitzen ziren. 2020tik indarrean dagoen ordenantzaren bidez, puntuazio bidezko baremazioz hautatzen ditu errentariak. Alokairu sozialeko udal jabetzako pisuetako bat esleitzeko, lehenbizi, udal etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan izena eman beharra dago eta horretarako, "hainbat dokumentu eta agiri aurkeztu behar dituzte eskaera orriarekin batera". Tramitazio hau errazteko araudi hori ere hasieraz aldatzea onartu zuen udalbatzak aho batez, abenduaren 19ko osoko bilkuran. Berrikuntza horrekin, "interesdunei ahalik eta agiri gutxien eskatze aldera, Udalak NISAE-ren Nodoaren bidez, interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruzko beharrezkoak diren egiaztatpenak eta kontsultak egitea ahalbidetu nahi da. Beti ere, interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz".

Udal dirulaguntzak

2023-25 urte arterako onartua duen Dirulaguntza Plan Es-

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
·paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontzeju zaharra, 13 **Tel 943 36 04 66**

ARANKA
BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

→ estrategikoaren baitan, 2025eko eranskinen alde bozkatu zuten udal ordezkari guztiek abenduaren 19ko osoko bilkuran. Horren baitan, 1.035.660 euro banatuko ditu dirulaguntzetan Udalak 2025. urtean, egitasmoetarako:

- **Euskara** (133.100 euro): dirulaguntzak, NOAUA! K.E., Etumeta AEK euskaltegia, ikastolen aldeko jaialdiak, Hizkuntz Eskubideen Behatokia, EHE, Jakin fundazioa, Elhuyar Fundazioa...

- **Garapen ekonomikoa eta enplegua** (59.500 euro): herri merkataritza eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak, lokal hutsetan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko dirulaguntzak, Kabiene gunean aritzeko Hasiz Hazi beka deialdia.

- **Gazteria** (4.500 euro): aisialdiko begirale eta zuzendari izateko ikastaroetarako dirulaguntzak.

- **Gizarte zerbitzuak** (123.260 euro): aurreikusi gabeko gizarte zerbitzuetako premiazko egoeretarako, gizarte larrialdietarako, baliabide nahikorik izan ez eta beste-lako dirulaguntzak eskuratu ezin dituztenentzako, gizarte ekintzan diharduten Usurbilgo nahiz Usurbildik kanpoko elkarreentzako, desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen tratamendu gastuetarako, deserrotze edo bazterte sozialeko arriskuan diren pertsonen senideentzako, herriko jubilatuek elkarrekin dinamiketarako, Oporrak Banean programarako edota gune komunitario zein begi-bistakoetan adimen-degaitasuna duten kolektiboko pertsona bat Udalean aritzeko dirulaguntzak.



Aho batez onartu zuen udalbatzak, 2025. urteko udal dirulaguntzen eskaintza.

- **Aniztasuna** (53.000 euro): ekintza humanitarioetarako edota garapen bidean diren nazioetako herritarren egoera sozioekonomikoa hobetzeko proiektuetarako dirulaguntzak.

- **Hezkuntza** (69.600 euro): musika irakaskuntza eta musika-kultura suspertzeko nahiz Zientzia Azokarako dirulaguntza.

- **Hirigintza** (130.000 euro): Usurbilgo etxebizitzaren alokairuak, igogailuen instalaketarako dirulaguntzak edota Eusko Trenbide Sarearekin sinatutako hitzarmena betetzeko diru ekarpena (Txokoal-

deko zubiaren birgaitzea eta sendotzea).

- **Idazkaritza** (4.000 euro): Naziometrorako diru ekarpena.

- **Ingurumena** (23.000 euro): ingurumen egitasmoetarako dirulaguntza irekiak, aire eta luraren kalitatearen jarraipena egiteko (Zubietako errausgailuaren eraginari lotutakoa) nahiz mugikortasun jasangarria sustatzeko auto partekaturako diru ekarpena.

- **Kirola** (139.000 euro): eskola kirola, kirol taldeak, kirol egokitua, kirol elkarrekin ez diren eragileak, laguntza bereziak, kirol teknikoaren pres-

takuntza, herriko kirol taldeen kirol mediku azterketak, eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzea sustatzeko dirulaguntzak.

- **Kultura** (231.700 euro): auzoetako jai batzordeen ekintzak, Geuretik Sortuak, Usurbilgo jaietako ekintzak, herriko elkarrekin kultur ekimenak, Jakin Jardunaldia, Eusko Ikaskuntza, kultur sormeneko egitasmoak. Horrez gain, hitzarmen bana sinatuko dute buruhandi eta erraldoien konpart sarekin, Orbeldi dantza taldearekin eta Salvatore parrokiarekin bertako ondarea 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren bidez eza-gutuzera emateko.

- **Nekazaritza eta abeltzaintza** (65.000 euro): jardueretarako dirulaguntza irekiak, arloko azokak eta ekintzak sustatzeko dirulaguntzak. Horrez gain, "Usurbil. Sagarraren bihotza, sagardoaren kultura", sektore horretako eragileak batzen dituen mahaiko eragile guztien hitzarmena sustatuko dute.

**HITZARMEN BANA
SINATUKO DUTE
ERRALDOIEN
KONPARTSA,
ORBELDI ETA
ELIZAREKIN**

**"SAGARRAREN
BIHOTZA,
SAGARDOAREN
KULTURA"
HITZARMENA
SUSTATUKO DUTE**

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91



Bertsotan, kantuan ekin zieten Elkargunea eraikitzeke topaketei abenduaren 23an.

"Usurbilek aterpe berria behar du"

2023tik sustaturiko lankidetzari segida eman eta anbulatorio ondoko zelaian kokatuko den bilgunea eraiki aurretik, egitasmoa herriratu eta haien arteko elkarlan hori sendotzen, eraikitzen jarraitzeke topaketak antolatut zituzten Elkargunea osatzen duten eragileek urte amaieran.

Palestinaren aldeko kantu-jira, bigarren eskuko azoka, herri egitasmo hau sakonago ezagutzeko erakusketa, memoriaren ibilbidea, sorkuntza tailerrak... eta ekimen gehiago ere antolatut zituzten Elkargunea osatzen duten Kulturguneak, Ziortzak, Gaztelekuak eta Aztarrika gazte asanbladak abenduaren 20tik 26ra. Herri sorkuntzaz blaitutako ekitaldiarekin eman zioten hasiera Sutegi ataritik. "Elkarlanak fruitua eman behar badu, Usurbilek aterpe berria behar du", aldarrikatu zuten bertso musikatuaren bidez. Segidan dituzue, bertso idatzi horiek.

Aterpe berria

Herri hontan agenda da beti notizi ta leku kontuetan hainbeste iritzi

batzuk elkartu eta honaino iritsi ta_inori ez diogu, ta_inori ez diogu aterikan itxi

Elkarlanak fruitua eman behar badu Usurbilek aterpe berria behar du

Sutegi da formala ta badu bermea baina zutik ta dantzan lekuri gabea ta herrian badenez artixta jendea sortzaile berrientzat, sortzaile berrientzat ireki bidea

Elkarlanak fruitua eman behar badu Usurbilek aterpe berria behar du

Astialdiak behar du bere aterpe aisialdia beti dabil leku eske bi ta bi beti da lau ta ez horrenbeste hemen soluzioa, hemen soluzioa hau izan daiteke

Elkarlanak fruitua eman behar badu Usurbilek aterpe berria behar du

**ELKARGUNEA:
"ELKARLANAK
FRUITUA EMAN
BEHAR BADU,
USURBILEK ATERPE
BERRIA BEHAR DU"**

Ta ze gauza ederra dan gaztetasuna Elkarlanean jardun gau eta eguna zaindu beharko degu buru osasuna aurrera egiteko, aurrera egiteko hau da behar_duguna

Elkarlanak fruitua eman behar badu Usurbilek aterpe berria behar du

"Proiektua abian da"

"Etorri gugana eta parte hartu". Gonbit hori egin zieten "Gero Bat Gaurdanik" topaketan antolatzaileek hasiera ekitaldira joandakoei. "Usurbilgo herritarrongana zabaldu eta iritsi behar den proiektua da" Elkargunearena. Topaketa hauek antolatzearen garrantzia gaineratu zuten. "Elkarlanak gaurtik hasi behar duela uste dugulako, elkarlan horretan dagoelako gakoa, herri hau eraldatzeko behar den potentziala, Elkargunea ez da eraikina inauguratuko den egunean hasiko, proiektua jada abian da". Azken urteotan, Elkargunea eraikitzeke jorraturiko lankidetzatik heldu dira honaino. "Elkartzen hasi ginen, elkarrekin ekiteko, elkarrekin egiteko, elkarrekin amets bat gorpuzteko. Behar ezberdinetatik abiatuta helmuga berdina bat, problematika eta hutsune ezberdinetatik abiatuta, ortzimuga berdina bat marraztu dugu, proiektu bat, tresna bat, Usurbilgo gazte mugimenduarentzako, kulturgintzarentzako eta astialdiarentzako harrobia, lantegia eta erakusleihoa izateko jaio dena". Gogorarazi zuten moduan, ordea, "bidea hasi besterik ez da egin". Aurreproiektu proposamena herriari aurkeztear duten arren, topaketen bidez, "Elkargunearen proiektua jada martxan dagoela aldarrikatzera etorri gara, geroa gaurdanik eraikitzen gabiltzala esatera".



Gazteei zuzenduriko sorkuntza tailerrak antolatu zituzten.



Usurbil 1936 elkartekoen eskutik, memoriaren ibilbidea osatu zuten.



Etxebizitari buruz Txirikordan eginitako lehen herri asanblada.



Topaketei errezitaldi musikatuarekin ekin zieten.



Elkargunea ezagutzeko aukera izan zen Sutegiko erakusketan.



Talogintzan trebatu ziren, herriko talogileen laguntzarekin.



AztarriTruk bigarren eskuko azoka egin zuten frontoian.



Palestinaren aldeko AztarriKant kantu-jirarekin eguberri bezpera girotu zuten.



Urtarrilaren 4an mus txapelketa antolatu zuen Usurbilgo Sarek. Argazkian dituzue irabazleak.

Sareren Bilboko mobilizazioari begira

Larunbatean, urtarrilaren 11n "Behin betiko. Bakea. Konponbidea. Elkarbizitza" aldarripean mobilizazioa deitu du Sarek Bilbon. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da La Casillatik. Ohi bezala, hara joateko, gainera, autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo Sarek. Izen-emate orriak jarriak dituzte ohiko tabernetan: Txiribogan, Aitzagan, Txirristan eta Bordatxon.

Egunotako Sareren ekimenak balantze modukoa egiteko Usurbilgo Sarek abenduaren 27an deitutako urteko azken elkarretaratzean iragarri zituzten. "Urte garrantzitsua izan da etxerako bideari dagokionez, hamaika dira dis-pertsioaren amaierarekin batera espetze ibilbideari ekin eta lege arrunta jarraituz etxerako bidea hasi duten euskal presoak. Balorazio ona egiten dugu noski honekiko, gatazkaren ondorioak amaitzea helburu dugun momentutik, euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea izan dugu eta izango dugu jomuga".

Agurtu berri dugun urtean, "biolentzia ezberdinen biktimei dagokionez ere, izan dira aurrerapausoak, biktimek merezi duten egia eta aitortzaren bidean pauso nabariak ikusi baititugu. Etxerako bidean zein biktimen egia edo aitortzan, ordea, bide luzea dugu egiteko oraindik, gatazkak utzitako ondorioek ondorio izaten jarraitzen baitute".

Pausoetan sakontzea

2025eko erronkei dagokienean, "aurrez emandako pausoetan mantendu eta pauso horietan sakontzea" aipatu zuten, "2024an ezarritako

bide-orriari jarraiki, euskal preso, iheslari eta deportatuen etxerako bidean aurrerapausoak ematen jarraitu nahi baitugu biolentzia ezberdinen biktimen egia eta aitortzarekin batera".

Larunbateko mobilizazioari begira, "beste behin, Bilbon behin betiko bakearen, konponbidearen eta elkarbizitzaren alde egingo dugu, biolentzia ezberdinen biktimek behin betiko egia jakin eta aitortza jaso dezaten aldarrikatuko dugu eta noski, euskal preso, iheslari eta deportatuen behin betiko etxeratzearen alde mobilizatuko gara", iragarri zuten.

Sareren deialdiak

Urtarrilaren 11ra arte

- Urtarrilaren 11ko Bilboko manifestaziora joateko Usurbildik antolaturiko autobus zerbitzuan izen-ematea ohiko tokietan: Txiriboga, Aitzaga, Txirristra eta Bordatxo tabernetan.

Urtarrilak 11, larunbata

- 15:00 Sareren Bilboko mobilizaziora joateko autobus zerbitzua Oiardo kiroldegitik.
- 17:00 Sareren mobilizazioa Bilboko La Casillatik.

Urtarrilak 31, ostirala

- 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

Mus txapelketako irabazleak

Bilboko mobilizazioa girotze aldera, mus txapelketa antolatu zuen urtarrilaren 4an frontoian. Segidan dituzue txapelketako irabazleak:

- Lehen bikote sailkatua: Tximi eta Jimi. Sariak: bi laguntzako otordua Aginaga sagardotegian.
- Bigarren bikote sailkatua: Imaz eta Aranburu. Saria: Bruño etxeko mariskada.
- Hirugarren bikote sailkatua: Aitor eta Inaxio. Sariak: 2 Lumagorri oilasko eta botila bat ardo.
- Laugarren bikote sailkatua: Arantxita eta Kerman. Sariak: 2 Lumagorri oilasko eta botila bat ardo.

Errifa zozketa

Sarek eginiko errifa zozketa bigarren sariduna Usurbilen egokitu da. 71.597 izan da zerbaki saritua. June Landaluze izan da saritua. Lehenengo zerbaki saritua 13.018 izan da, Lizarraldean saldu zuten txartela. Hirugarren zerbaki saritua 34.624 izan da. Ean saldu zuten txartel hori.



Olentzeroren panpinarekin egin zuten frontoirako bidea.



Frontoian bat egin zuten DBH zein LH-ko ikasleen kalejirek.

Euriak Udarregi ikastolakoen bi kalejirak batu zituen

Eguraldiak DBH-ko eta LH-ko ikasleen kalejirak baldintzatu zituen eta frontoian aritu behar izan zuten.

Aurreikusia zuten moduan, baserritar jantziekin irten ziren Udarregi ikastolako atarira eta bertatik abiatu zuten kalejira.

DBH-ko ikasleek Gernika ibilbidean beherantz jo zuten Mikel Laboa plazarantz. LH-koek aldiz, Atxegaldetik ba-

rrena ekin zioten haien kantaldiari.

Eguraldiak zeharo baldintzatu zuen plana

Talde guztiek bidean hainbat geldialdi egiteko asmoa zuten gabon kantuak abesteko, baina irten eta gutxira haizea gogortu eta gogotik hasi zuen euria. DBH-koak eta bidean zetozen LH-koak frontoian elkartu ziren, aterpean. Goizerako zuten plangintza goitik behera aldatu behar izan zuten.

Euriak hortaz, bi kalejirak batu zituen; LH eta DBH-koak batera aritu ziren kantuan Usurbilgo pilotalekuan. Urte garai honetako ohiko kanta ezagunak abestu zituzten, frontoira joandako senide eta lagunen aurrean.

Handik, ikastolara abiatu ziren oporretara joan aurreko azken hamaiketako berezia, txistor jana dastatzera.

Urtarrilaren 8ra arte ia hiru asteko oporrez gozatzeko aukera izan dute ikasleek eta irakasleek.



Euriari aurre eginez osatu zuten kalejira.



Guraso zein senideen aurrean aritu ziren kantari, aterpean, frontoian.

Etkez etxe kantuan agurtu zuten urtea Aginagako eskolakoek

Neguko oporraldian murgildu aurretik, gabon giroa hedatzen aritu ziren Aginagan barrena. Etkez etxeko bira egin zuten, kantuan eta ga-

bonetarako propio sortutako bertsoak abesten. Sekaño aldean egin zuten geldialdian, hamaiketako ederra dastatu ahal izan zuten.

Zubietako Eskolako ikasleek kantuz hartu zituzten oporrak

Zubietako Eskolako ikasleek gabon kantak eta kanten inguruan osatutako koreografiak eskaini zituzten abenduaren 20an, Zubietako frontoian.

Senide ugari bertaratu ziren eta, amaieran, hamaiketako baten bueltan batu ziren denak: ikasleak, irakasleak eta senideak.



Mari Domingiri eta Olentzero frontoira hurbildu ziren.



Galtzagorriak izan zituzten bidelagun.

Olentzerori eta Mari Domingiri harrera beroa egin zitzaien

Euria tarteko, Kalezartik abiatzeakoa zuten kalejira bertan behera utzi behar izan zuten. Kiroldetik frontoirako ibilbide azkarra osatu zuten Mari Domingirik eta Olentzerok.

Mari Domingiri eta Olentzerori harrera beroa egin zie-

ten frontoian eta ez Dema plazan, aurreikusia zegoen

moduan. Izan ere, etenik ez zuten euriak goitik behara aldatu behar izan zuten antolakuntzaren plangintza.

Ibilbidea egokitu behar izan zuten

Urtero legez, Kalezartik herri erdigunera kalejira egitea zen asmoa. Baina atertzen ez zuela ikusirik, ibilbidea egokitu eta nabarmen murriztea erabaki zuten.

Udarregi ikastola paretik abiatu ziren eta handik

behera minutu gutxian amaitu zuten ezinbestean, euripean egin behar izan zuten kalejira txikia. Galtzagorriak izan zituzten bidelagun, haiek argiztatu zieten bidea, baita zanpantzarrek edota adarjoleek ere.

Frontoia, jendez gainezka

Konturutzerako, estalpean, frontoian ziren. Pilotalekua leporaino bete zuten herriki-deak zituzten zain.



Haurrek aukera izan zuten Olentzerorekin elkartzeko.

Olentzero menditik iritsi zen Aginagara

Olentzero egun bat lehenago iritsi zen, ohi bezala, Aginagara. Menditik heldu zen eta laguntzaileek argitu zioten bidea.

Trikitilariek eta Aginagako gaztetxoek bidean hartu zuten Olentzero eta denak batera

iritsi ziren, kalejiran, Aginagako Eliza Zaharrera.

Gutunak hartu zituen

Haurrek aukera izan zuten Aginagan Olentzerorekin elkartzeko. Haurren gutunak jasotzeko tartea hartu zuten.



Ziortzako lagunak Askatasuna plazan batu ziren San Tomas egunean.

San Tomas eguna ospatu zuten Ziortza Gazte Elkarteko kideek

San Tomas azoka astebete lehenago ospatzen da Usurbilen. Egun seinalatua ordea, ez da oharkabea pasatzen. Ziortzakoek gabonetako oporetan murgiltzeko aitzakia baliatzen dute. Bi asteko opporrak hartu zituzten askok,

eta batez ere, ikastolako haur eta gaztetxoek. Hori ikusita, Ziortzako lagunak saio berezia egin zuten San Tomas egunaren bueltan, gabonei etorrera egiteko. Musika eta giro onik ez zen falta izan herrian.



Belaunaldi guztietako herrikideak aritu ziren Salbatore elizan.

Gabon giroari ahots ederrez egin zioten harrera Zumarteko abeslariak

Ahotsek izan zuten erabateko protagonismoa Zumarte Musika Eskolako abenduaren 18an, Salbatore elizan eskainitako gabonetako kontzertuan. Belaunaldi guztietako herrikideak aritu ziren, banaka, nahiz talde txiki zein handiagoetan, urte

garai honetako abestiei ahotsa jartzen.

Kantu modernoko ikasleak, Zumarte Txiki Abesbatza, ZumarTeen Abesbatza eta Zumarte Gazte Abesbatza... Usurbilgo musika eskolak badu abeslari aldetik oparotasuna.




Eguneko Zentroko zein Eguneko Arreta Zerbitzuko erabiltzaiek, musikariei adi.

Belaunaldiarteko topaketa Zumarte Musika Eskolako ganbaran

Urtean bitan biltzen dira Zumarte Musika Eskolako ikasleak eta Eguneko Zentroko zein Eguneko Arreta Zerbitzuko erabiltzaileak. Udaberriko bilkura Egurtzegin egin zuten. Gabonen atariko aldiz, Zumarten. Udalak eta Zumartek sustaturiko esperientzia truke

honetan gozatu ederra hartu zuten denek. Esker ona adierazteko, Eguneko Zentroko eta Eguneko Arreta Zerbitzuko erabiltzaileek eskuz eginitako apaingarriak oparitu zizkieten antolatzaileei. Elkarri egun zoriontsuak eta urte berri ona opatuz agurtu ziren.



Oier Agirresarobek bere lagun mago batzuk gonbidatu zituen Sutegira.

Inoizko galarik magikoena izan da Sutegin

Oier Agirresarobe mago gazteak antolatutako 'Sasi guztien gainera...' gala magikoa egin zuten abenduaren 28an Sutegin.

Oso ekimen jendetsua izan zen, eta Sutegiko edukiera bete zuten ikusleek. Magiaz

gozatzeko aukera aparta izan zen askorentzat.

Bost mago iragarriak zeuden Sutegin: Eneko Gutierrez Legazpitik, Maria Arandia Errenteriatik, Iago Azkue Azpeititik, Oier Jurado Markinatik eta Oier Agirresarobe Usurbildik.



Oporraldiak aprobetxatuz, irristaketa ikastaroa egin zuten Santuenean.

Irristaketan trebetasun handiz Santuenean

Oporraldi betean izan dira gaztetxoek eta ekintza ezberdinetan parte hartu dute. Ondoko irudian ikus dezakezuen moduan, Santuenean irristaketan aritu ziren. Negu giro hau tarteko, auzoko frontoiko estalpea hautatu zuten trebakun-

tza saioak abiatzeko. Beharrezko segurtasun eta babes neurri guztiak hartzeko prestaketei beharadina tarte eskaini ostean, irristaketarako gune bilakatu zuten frontoia. Ageriko trebetasuna erakutsi zuten guztiek jarduera horretan.



Erregeekin egoteko aukera izan zuten gaztetxoek ekitaldi amaieran.



Errege magoek laguntzaile ugari izan zituzten.

Traktore gainean heldu ziren erregeak

Eroso asko, traktore gainean heldu ziren Baltasar, Meltxor eta Gaspar erregeak urtarilaren 5ean gure artera.

Frontoian egin zitzairen harrera eta oholza gainera hitza hartzeko aukera izan zuten

hiru protagonistek. “Txintxoak izan al zarete?”, galdetu zieten pilotalekua bete zuten gaztetxoei. Aho bateko baiezkoa eman zieten. Erregeek “oparirik hoberena, guk ekarritakoa elkarrekin partekatzea” izan-

go zela gogorarazi zuten. Estreinatu berri dugun urtera begira, egin dezakegun hobere-
na “urte osoan zehar, elkar maitatzea, elkar errespetatzea eta elkarri laguntzea”, dela ere gaineratu zuten. Erregeekin egoteko aukera izan zuten gaztetxoek ekitaldi amaie-
ran.

Ziortzak 40 urte

Aipatzekoa, urtero moduan, bidea argitu zietenen ahale-

gina beste behin. Izan ere, Ziortza gazte elkarteko kideak izan zituzten bidelagun hiru erregeek. 2025a berezia izan-
go da haiantzat, 40 urte bete baititu bilguneak.

Kabalkadan soilik ez, goizean frontoian eginiko dinamikak ere antolatu zituen Ziortzak. Postaria haurren gutunak bil-
tzen aritu zen. Haurrek opariak ezkututzen eta zapiekien jola-
sean aritzeko aukera ere izan zuten.



Herritar askok Andatzara igoz hasi zuten 2025. urtea.



Gabonetako Haur Parkera gaztetxo ugari bertaratu ziren.

Zuhaitz erorketak, haizetearen eraginez

60-100 kilometro orduko haize-bolada arriskuagatik abisu horiaren eraginpean izan ginen urtarilaren 5ean. Haizea tarteko, hain zuzen, zuhaitz bat erori zen kateneria gainera, Usurbil eta Orio arteko trenbide sarean. Ondorioz, goizeko lehen ordue-

tan tren zerbitzua etenda egon zen. Eguerdirako konpondu zuten ezbeharra.

Hilerrirako bidean beste zuhaitz erori bat

Bestalde, Usurbilgo hilerri inguruan, errepidera erori zen beste zuhaitz bat.



Hilerrirako bidean, zuhaitz eroria. ARGAZKIA: J. PIÑAS.

Mintzalagun izateko deia

Urtarrilaren 13tik 27ra eman ahal izango da izena. Parte hartzaileek lortzen dituzten onurak, "euskaraz hitz egiteaz haratago, onura praktikoak, sozialak, emozionalak dira".


Euskara ahotan hartzea sustatzen duen Mintzalagun egitasmoa berriz martxan jartze- ra doaz Usurbilen. Gogoan izan, taldeka, "euskaraz ondo moldatzen den pertsona bat, hizkuntza maila hobetu nahi duten lagun talde batekin elkartzen da eta hainbat gaien inguruan mintzatzen dira partekatzen duten denbora tarte horretan". Normalean, astean behin biltzen dira taldeok. Taldeak, "kideen zale- tasunak, adina, bizitokia eta ordutegiak kontuan hartuz sortzen dira".

Bi motatako euskaldunak biltzen ditu, beraz, Mintzala- gun egitasmoak. Batetik, "eus- karaz bizitzeko ohiturarik ez dutenak: egunerokoan beren inguruan hitz egiteko aukera- rik ez daukatenak, euskara

ikasten ari direnak, aspalditik euskaraz hitz egin ez eta ja- riotasuna berreskuratu nahi dutenak... Programak euska- raz aritzeko trebakuntza eta aukera ematen die parte har- tzaile hauei". Haiekin batera biltzen dira, euskaraz ondo moldatzen direnak. Hauek "euskararen normalizazio prozesuari ekarpena egiten diote, zailtasunak dituzten euskaldunei elkarrizketaren bidez lagunduz. Eta, noski, badira lagun berriak egin nahi dituzten kideak ere, giro eus- kaldunean murgildu nahi dutenak".

Izen-ematea irekitzear

Duela hiru hamarkada jarri zuten martxan estreinakoz egitasmo hau Donostiako Ba- gera Euskaltzaleen Elkarteak.



QR kodearen bitartez zabalduko zaizun formularioa bete behar da.

Urte luzeetako dinamika hau, aipatu moduan, berriz jarri nahi dute martxan Usurbilen. Euskaltzaleen Topaguneak eta Ttakunek sustatu eta Usurbil- go Udalak babesturiko egitas- morako matrikulatzeko garaia zabalteaz da; urtarrilaren 13tik 27ra eman ahalgo da izena, ondoko irudiko QR kodearen bidez. Bertan formulario bat osatu beharko da.

Onura ugariko ariketa

Kartelok herrian jarri dituzte asteotan. Bestela, eskuorriak ere jarriko dituzte eta horien

bidez ere apuntatzeko aukera izango da. Eskuorriok Potxoe- nean eta Etumeta AEK eus- kaltegian eskuratu ahalgo dira. Sustatzaileen esanetan, parte hartzaileek "lortzen dituzten onurak, euskaraz hitz egiteaz haratago, onura praktikoak, sozialak, emozionalak... dira". Izan ere, "hitz egiteaz gain, gustuko dituzten ekintzak egiten dituzte elkarrekin, hala nola, lagun giroan paseatu, kirola egin, kafe bat hartu edo besterik gabe elkarren kon- painia eta solasaldiaz disfruta- tu!".

Helduentzako solasaldi filosofikoa

"Pentsatzen ikastea garrantzitsuagoa da zer pentsatu behar dugun jakitea baino", sustatzaileek aditzera eman dutenez.

Jakinmin Elkarteak eta Usur- bilgo Oinherri Herri Hezitzaile- lea Elkarteak azken urteotan hausnarketarako gune aske hau sustatzeko lanean dihar- dute Usurbilen, gaztetxo eta helduekin.

Saioen abiapuntua hitzor- duok gidatzen dituenaren gal- dera bat izaten da eta hortik aurrera, bertan daudenek hitza hartu eta hausnarketarako bi- dea zabalteaz dute. Epaiketari- rik gabe, iritzi eta gogoeten

elkartrukeri ekiten diote as- katasun osoz saioa amaitu arte. "Pentsatzen ikastea garrantzi- tsuagoa da zer pentsatu behar dugun jakitea baino, eta hori dagure helburua: apurka-apurka pentsatzen ikastea, galde- retatik abiatuz arrazoitzen eta argudiatzen saiatzea. Funtsean, filosofatu egiten dugu eta ho- rretarako denok gara gai!", antolatzaileen esanetan.

Filosofatzearen onurak go- gorarazi dituzte. "Filosofa-



Potxoenean elkartuko dira ostiral honetan.

tzeak berarekin dakar pen- tsamendu kritikoa garatzea. Pentsamendu kritikoa beti uste izan duzun hori zalantzan jartzea da, eta beste zerbait pentsatzeko irekita egotea;

pentsamendu kritikoa lehe- nengo erantzunarekin ez konformatzea da eta iruzu- rrekiko eta ezjakintasunare- kiko antidoto gisa funtziona- tzen du".



Eskubaloi txapelketan lehiatu zen Usurbil K.E.-ren nesken taldea.



Usurbil K.E.-ren mutilen taldeak bigarren amaitu zuen txapelketa.

Mirotzen omenezko txapelketa

Hamalagarrenez, Mirotzen omeneko eskubaloi txapelketa jokatu zen abenduaren 27an Oiarde kiroldegian. Infantil eta kadeteen mailako seina neska-mutil eskubaloi taldeek parte hartu zuten. Garaipene-

kin hasi zuten topaketa eguna Usurbil K.E.-ko bi taldeek. Lehen hiru postuetan sailkatu ziren. Txapelketaren amaieran izandako urteroko sari banaketan, bi atezain saritu uzteaz gain, bigarren postua

lortu zuten herriko mutilek eta hirugarrena neskek.

Sailkapen orokorra

Neskak

1. Basauri ET.
2. Anaitasuna.
3. Usurbil KE.
4. Aiala ZKE.
5. Pulpo EK.
6. Tolosa CF.

2. Usurbil KE.
3. Basauri ET.
4. Tolosa CF.
5. Pulpo EK.
6. Amenabar ZKE.

Jokalari onenak

Xabier Legarreta (Anaitasuna)
Naia Penacho (Basauri Eskubaloi Taldea).

Atezain onenak

Hiart Zubeldia (Usurbil KE).
Ainhoa Villafila (Usurbil KE).



Touring K.E. taldekoek irabazi zuten Harane 2024 Txapelketa.



Abenduaren 23an goiz osoan zehar aritu ziren Haranen futboleak.

Ikusgarria, Harane 2024 txapelketa

Oporretan sartu orduko ha- maika dinamikatan murgildu ziren gaztetxoak; tartean, herri- antolaturiko kirol hitzorduetan. Lerrotoakoa duzue horien adibideetako bat; abenduaren 23an goiz partean

jokatutako Harane 2024 futbol txapelketa.

Sei talde

Gogotik parte hartu zuten Usurbil F.T.-k antolaturiko ekimeneko parte hartzaileak.

Negu giro beteko hotzak ez zituen inondik inora ere kikildu parte hartzaileak. Alebin mailako lehen urteko sei futbol talde aritu ziren ekimen honetan; tartean, etxekoak eta haiekin, gertuko nahiz Gipuzkoako beste hainbat udalerrietatik etorritako futbolari gaztetxoak. Izan ere, usurbildarrekin batera aritu ziren futboleak, Orioko F.T., Lazkao K.E., Oreretako Touring K.E., Añorga K.K.E., Astigarragako

Mundarro K.E. eta Billabona F.K.E klubetako ordezkariak.

Touring K.E. nagusi

Gaztetxoek lagunarteko topagunea izan genuen abenduaren 23 hartako goiz partean Harane futbol zelaia. Aldi berean, bina partida jokatu ziren goizean hasi eta eguerdi partera arte. Final saioen ondotik egin zuten sari banaketa. Oreretako Touring K.E. izan da aurtengo irabazlea.



Sorreratik aurrera, jatorrizko laukotea mantendu du Odolaren Mintzoak.

Lagunarteko musika jaialdian agurtuko dute Odolaren Mintzoa

Bere ibilbidea amaitzear du Usurbilgo Odolaren Mintzoa taldeak. Udazken honetan bertan iragarri zuen bere agurra. Berezia izango da, ordea, amaiera. Izan ere, lagunartean eta jai giroan, jaialdi handi batean eskainiko du azken kontzertua Joanes Txueka (baxua, koroak), Beñat Txueka (gitarra), Jokin Irastortza (bateria) eta Luken Arkarazo (gitarra) laukoteak.

Urtarrilaren 25ean izango da. Larunbat horretarako, egun osoko jaialdia iragarri dute. Musikaz blaitua egongo da eguna, nola ez. Herriko sor-tzaileak, musika taldeak, zaletuak, lagunak... izango dituzte bidelagun, ordu luzeetako kontzertu iluntze eta gau partean.

Talde ugari batuko dira agurreko festara

Albiste honi atxikitako argazkia atera zuten urte amaieran, taldeko kideek bidelagun izango dituzten hainbatekin Mikel Laboa plazan. Segidan duzue taldeen zerrenda. Eguna, halere goiz hasiko dute; bazkalaurretik, Usurbilgo

Fanfarrikant-ekoen girotzearekin. Bazkari baten bueltan bildu nahi dituzte gero, bidelagun guztiak.

Sarrerak eskuragarri

Arratsaldeko 17:30ean hasita, kontzertuen maratonia izango da frontoian. Adi, sarrerak dagoeneko salgai dituzue. Bi

sarrera mota jarri dituzte guztion eskuragarri; kontzertuetarako txartelak nahiz kontzertuetarako eta bazkaritarako direnak.

Agur birako azkena

Orion eta Galizian eskaini zituena Odolaren Mintzoa taldeak aurreko hilabeteetan, bere

"URTARRILAREN 25EKO KONTZERTUAREKIN, TALDEA SORTU ZEN HERRI BEREAN DESEGINO DA"

LAGUNARTEAN ESANGO DUTE AGUR, USURBILGO FRONTOIAN ANTOLATU DUTEN JAIALDI BATEKIN

agur birako hiru kontzertuetan lehenengo biak. Azkena, aipatu moduan, sorterrian, Usurbilen eskainiko dute urtarrilaren 25eko jaialdiaren baitan. Sare sozialen bidez iragarri zuten haien agurra. "Hasi eta bukatu egiten diren gauzen multzo horretan dago maitasuna" zioen abesti zahar batek. 18 urteren ostean heldu zaigu agur esateko ordua. Baina aurretik, elkarrekin ospatuko dugu bidai zoragarri honen amaiera".

Diskografia

2008tik hona, kontzertu eta bizipen andana bildu ditu taldeak, hainbat disko argitaratzearekin batera:

- 2022: "Hauskor".
- 2017: "Etsipenaren aurka".
- 2014: "Elkar Estudioa, Sesioak".

'Azkenak', agur jaialdia

Urtarrilak 25, larunbata

- Bazkalaurretik, Elektropapo herria girotzen.
- 13:30 Bazkaria Age-rialdeko jantokian.
- Ondoren, Anuk eta Elene.
- 17:30 Kontzertuak frontoian: Viafara, Hysteria, Zaparra, Mihise, Txiskeroak, Ameba, Rukula, Odolaren Mintzoa, Dj Jotatxo.

Sarrerak salgai

Aitzagan eta Txirritra tabernan nahiz usurbilkultura.eus plataforman. Prezioak:

- Kontzertuetarako sarrera: 10 euro.
- Kontzertuetarako eta bazkarirako sarrera: 25 euro.



Gaztetxoek abiada bizian.



Jendetsua izan zen Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa.

Jai giroan korrika, herriko saltokien alde

Ehunka lagunek parte hartu zuten, 2024a agurtzeko herri merkataritzaren aldeko herri lasterketan.

Haur, gazte eta heldu, lasterka bizian herri merkataritzaren erdigunea inguratu zuten urte amaieran, Hurbilago San Sil-

bestre Herri Lasterketan. Lagunartean bizitzeko hitzordua izanik, umore ederrean osatu zuten ibilbidea belaunaldi

ezberdinetako herrikideek, nahiz izan ziren helmugara erritmo bizian iritsi nahi izan zutenak ere. Kirola egiteko jantziekin joan ziren herri lasterketara bat baino gehiago. Ez zen mozorrotutakorik ere falta izan. Gabonez gain, inauteri kutsua ere izan zuen urte amaierako azken hitzordu honek. Kasu batzuetan, osagarriak baliatu zituzten mozorrotzeko, beste kasu batzuetan, goitik behera jantzi bereziekin ikusi genituen lasterkariak.

Opari mordoa banatu zuten, urtero moduan lasterketaren amaieran. Antolatzaileek beti gogorarazten dute, ekimen horren aurretik izen-emateak duen garrantzia, hala egin zutenen artean egin baitzen oparien zozketa. Produktu goxo askoez hornituriko otarak banatu zituzten, palak, ardoa, baita bizikleta ederra ere. Mozorro onenarentzat saria ere izan zen. Errege-opilez jantzitako lagun kuadrilla saritu zuten. Otordu eder askoa irabazi zuten trukean.



Belaunaldiarteko lasterketa izan zen.



Helmugara irribarretsu heldu ziren parte hartzaileak.



Errege-opilez jantzitako lagun kuadrilla saritu zuten.



Hurbilagoko kideak oparien zozketako sarietako bat eskuartean dutela.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban izena emateko aukera

Estreinatuta berri dugun urte honi begirako lehen kirol hitzordurako izen-emateak zabalik segitzen du. Izan ere, urtarrilaren 26an jokatu da Irisasi BTT Hotzak Akabatzen. Ohi bezala, parte hartzaileek goizeko 9:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik bizikleta gainean Andatzako itzulia egitera. Antolatzaileek orotarazi moduan, ekimen hau "zeharkaldi ez lehiakorra da. Bere helburu bakarra partaideek Andatza mendiaz eta ezaugarritzen gaituen giro ederraz disfrutatzea da".

Bi ibilbide aukeran

Iaz bezala, aurten ere parte hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran: "bat luzeagoa eta teknikoagoa eta bestea laburragoa eta denek disfrutatze modukoa". Zeharkal-



500 lagun bildu ohi dira.

di horretan zehar, "anoa gunehandi bat egongo da eta amaieran, frontoian beste bat". Antolatzaileek argitu dutenez, bestalde, bizikleta elektrikoekin parte hartu ahalko da.

Izen-emateari dagokionean, aipatu moduan, inskripzio epealdia zabalik da eta hala segiko du urtarrilaren 23a amaitu arte, 30 euroren truke kronoak.com atarian. Izen ematen dutenek txaleko bat jasoko dute opari.

Aurtengo Oriaren Traineru Jaitsierari data finkatu diote

Negu partean izaten da arraunketa probarik, horietako bat udalerrri hau zeharkatzen duen ibaian bertan eta Aginagatik abiatutako Oriaren Jaitsiera. 2025eko edizioari data finkatu dio antolakuntzak, Orio Arraunketa Elkarteak. Datorren proba hau, otsailaren 15ean jokatu da, larunbatarekin. Arratsaldeko 16:00etan hasiko dira lehiazten modalitate eta jatorri ezberdinetako parte hartzaileak. Izan ere, gogoan izan, Llagut Catala deritzenak, traineru beteteranoak, emakumezkoen eta gizonezkoen gainerako taldeek parte hartu ohi dute. 1995ean hasi zen antolatzen Orio Arraun Elkarteak, estropaden udako denboralditik haratago, "traineruetan parte hartzen duten arraunlarien prestakuntza fisikoa eta teknikoa urte guztian zehar" lan-



Otsailaren 15ean jokatu da XXXI. Oriaren Jaitsiera.

tzen zela ikusirik. Orduetik, parte hartzaile kopurua hazten joan da.

Bi proba

Ohi bezala, bi distantzian jokatu da proba. Batetik, 4.000 metroko modalitatean lehiatuko dira hainbat parte hartzaile Aginagako Sarikolatik Oriorantz. Gainerakoek 6 kilometroko ibilbidea osatuko dute Mapiletik Oriorantz. 31. edizioa izan da aurtengoa.

Donostiako Lilatoian elkarrekin parte hartzeko deia Emakumeon Etxetik

Otsailaren 23ko Donostiako Lilatoian talde gisa, oinez edo korrika parte hartzea proposatu zuen Emakumeon Etxeko sustapen taldeak. Urtea agurtu aurretik, 44 emakumeek gutxienez izena emana zuten. "Lilatoiko izen-emate ofiziala irekita dagoen bitartean aukera izango da Usurbilgo taldean izena emateko ere: Lilatoiko antolatzaileen arabera, urtarrilaren 23ra arte edo plaza kopurua bete arte emango dute horretarako aukera (lehenengo gertatzen denaren arabera)". Horretarako, "Usurbilgo taldean parte hartu nahi duenak, Lilatoian izena eman aurretik, Usurbilgo Emakumeon Etxera jo beharko da (aurrez aurre, telefonoz edo emailaz): kode bat emango diote han. Kode hori ezinbestekoa da izena-emateko web-



Pelaioenean eman behar da izena.

gunera sartu eta talde horretako kide gisa izena emateko. Galdetegi bat bete beharko du parte hartzaile bakoitzak, "informazio zehatza eta osoa eman". Galdetegia osatutakoan gordeko da plaza. Lilatoian parte hartzeko 15 euro ordaindu behar dira. Hori eginda, Usurbilgo Emakumeon Etxeko whatsapp kanalera harpidetu, eta horren bidez jasoko da entrenatzeko hitzorduen berri".

Apirileko Ibai-Ondo Backyard erronkako izen-emateak itxarote zerrendara

Arrakastatsua izan da, estreinakoz, apirilaren 12ko astebururako antolatzen ari diren "Ibai-Ondo Backyard" probarako izen-emate deialdia. Izan ere, dagoeneko eskuragarri jarritako dortsal adina izen-emate jaso dituzte. Honenbestez, aurrerantzean, probarako apuntatzen dena itxarote zerrendara igaroko dela ohartarazi dute antolatzaileek. Parte hartzeko gogoz direnek backyardbaiondo@gmail.com helbidera idatzi behar zuten.

Entrenamendu bat iragarri dute otsailaren 15erako

Aldez aurretik, apirileko erronka prestatzeko entrenamendua antolatu dute "Ibai-Ondo Backyard" proba bideratzen ari direnak. Otsailaren 15ean izango da, larunbatarekin.



Santueneko erronkako dortsal guztiak agortu dira.

Hiru orduko trebakuntza saioa izango da, goizeko 9:00etan Santueneko frontoetik hasita. Gogoan izan, orduero Atallu, Santuenea eta Txokoalde lotuko dituen 6,7 kilometroko ibilbidea osatzea da proposaturiko erronka. "Etorri nahi duten korrikalari guztiek" parte hartu ahalko dute erronka horren prestaketa saioan. Segidan, 12:00etan hamaiketako dastatuko dute Ibai-Ondo elkartean.



650 Usurbil Bizi Otarren egitasmoko sustatzaileak.



Antolakuntzak eginiko otarren zozketako sarituak.

Ehun saridun zozketa

Abenduaren 29an frontoian eginiko ekitaldian banatu zituzten, bezperan zozketaturiko 650 Usurbil Bizi Otarren egitasmoko sariak.

Hamasei saltoki, bakoitzean sei saritu, guztira 96, eta beste lau antolakuntzak hautaturikoak. Guztira ehun saritu izan zituen abendu amaieran eginiko 650 Usurbil Bizi Otarren zozketak. Biharamunean, abenduaren 29an banatu ziren frontoian egindako ekitaldian, aurrez herriko saltokietan erosketak egin zituztenen artean. Otarrok herri ekoizpen eta sorkuntzaz hornituak zeuden. Izan ere, Usurbilgo toki-eko ekoizpena, sorkuntza eta kontsumoa sustatzea du xede egitasmo honek.

Jarraipenerako deia

Hitzordu horrekin amaitutzat eman zuten urte garai honetako kanpaina, bere sustatzaileek; Usurbilgo Udalak, Kulturguneak eta Hurbilagok. Halere, otarren banaketa ekitaldira joandakoei mezu argia helarazi zieten; "jarraitu herriko ekoizleak eta sortzaileak elikatzen, jarraitu herriko dendetan erosten eta jarraitu herria mugitzen". Hori guztia auzolanean, noski. Izan ere,

lankidetzaren erakusleihu ederra izan da azken asteotako ekimen hau. Herriko dendariak, sortzaile eta ekoizleak eta aipatu hiru eragileek parte hartu dute.

Parte hartzaileak

Tokiko 31 ekoizleak eta sortzaileak parte hartu dute aurtengo 650 Usurbil Bizi otarren egitasmoan; udalerrri honetako 18 kultur sortzaileak eta 13 ekoizleak, zehazkiago esanda. Honako hauek: Aginaga Sagardotegia, Aialde Berri sagardotegia, Ameba, Arkaitz Portularrume Unanue, Arrillaga-Txiki baserria, Arrospide barazkiak, Basatxerri, Borda Txuri-Lumagorri, Bordatxo esneak, Eiti, Elhuyar Fundazioa, Iñorkiñak, Ione Iruretagoiena, Iruin sagardotegia, Ixabel Agirresarobe Arzallus, Jakoba Errekondo, Jose Mari Zaldúa-Sari Frutak, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Maider Alzaga, Mihise, NOAUA! Kultur Elkartea, Odolaren Mintzoa, Olatz Zabaleta, Osto eta Ale, Rukula, Saizar sagardotegia, Urdai-

ra sagardotegia, Usurbilgo Sagastia, Viafara, Xüka eskuz egina eta Zaparra.

Sarituak

Hemen duzue zozketako sarituen zerrenda:

- **Aizpurua okindegiko sarituak:** Ixidro Iribar, Leire Lizarralde, Tomas Udabe Borda, Pello Aranburu, Ramon Alcor-ta, Jokin Eizagirre.
- **Alkartasuna kooperatibako sarituak:** Joxean Segurola Arregi, Isidro Bengoetxea, Xoko Matxain, Roman, Estrella Nuñez eta Joakin Otxotorena.
- **Ane ileapaindegiko sarituak:** Aitor Irazusta, Maria Luisa Manterola, Mari Karmen Karrera, Sokorro Sanchez, Milagros Cantero, Maria Jesus Urdangarin.
- **Arruti harategiko sarituak:** Joxerra Furundarena, Pepita Arrillaga, Eva, Vir Herrera, Txus, Jon Aizpurua.
- **Artzabal baserri-jatetxeko sarituak:** Mari Sucunza Zabaleta, Mario Jimenez, Alfredo Chamorro, Rosa Arruti, Iñaki Redruello Gomez, Eukene Camino.
- **Enar estetikako sarituak:** Alazne Begiristain, Cris Vilchez, Josune Estella, Maria Jesus Marchan, Nerea Unanue, Ainhoa Azcue.
- **Esnaola janari dendako sarituak:** Kontxi Landa, Jose Mari Azpiroz, Jone Eizmendi, Agustin, Josu Furundarena, Alicia Martinho.
- **Intza ileapaindegiko sarituak:** Lurdes Gonzalez, Aitor

Jauregi, Amaia, Miren Arana, Amaia Lizartza, Maria Honza.

- **Iratze natur dendako sarituak:** Marina Prieto, Goretti Aranburu, Maialen Ugalde, Maite Galdona, Martin Agirresarobe, Florita Uranga.
- **Laurok liburudendako sarituak:** Irene Gartzia, Maribel Jorge, Josean Jenaut, Imanol Iktza Arruti, Jon Ander Bonail, Nicolas.
- **Lizardi liburudendako sarituak:** Ane Agirre Alkain, Marian Altuna, Lorena Marticorena, Asier Iturralde, Araitz Azpirotz, Nerea Etxebarria Atutxa.
- **Lurda mertzeriako sarituak:** Martin Larrañaga, Sara Zubizarreta, Aitziber Aranguren, Maria Sola, Edurne Albisu Mujika, Maitane Izeta.
- **NI ileapaindegiko sarituak:** Arantza Unanue Arruarte, Mari Tere, Nagore Gonzalez, Gorka Arroyo, Idoia Torregarai, Kar-mele.
- **Opil-goxoko sarituak:** Itziar Pagola, Maite Salaberri, Eneko Eizagirre, Rosa, Marta Palma Alvarez, Nekane Sagardia.
- **Otar-Goxoko sarituak:** Mari Carmen, Jose, Pili Iturrioz, Miriam Oyarzabal, Isabel, Xabier Eizagirre.
- **Usurbil optikako sarituak:** Marije Furundarena, Arantxa Zuloaga, Ainhoa Arrozpide, Ana Flores, Eva Nogales, Ane Zuloaga.
- **Antolakuntzak eginiko zozketako sarituak:** Marijo Curiel Leunda, Juan Ulloa, Iñaki Labayen eta Maribel.



Otar-Goxoko eta Usurbil optikako sarituak.



NI ileapaindegiko eta Opil-Goxoko sarituak.



Lizardi liburudendako eta Lurda mertzeriako sarituak.



Iratze natur dendako eta Laurok liburudendako sarituak.



Esnaola janari dendako eta Intza ileapaindegiko sarituak.



Artzabalgo baserri-jatetxeko eta Enar estetikako sarituak.



Ane ileapaindegiko eta Arruti harategiko sarituak.



Aizpurua okindegiko eta Alkartasuna kooperatibako sarituak.



Ibai eta Iñigo Etxaniz anaiak eta Iker Muguruza, Salbatore elizako kanpandorrean, urtarrilaren lehenean.

Ezkila-hotsak entzun ziren urte berri egunean

Artze anaiak Salbatore elizako ezkilak jotzeko ohitura zuten. 1996an galdu zen joera, azaroko Txalaparta Festan berreskuratu zen. Egun seinalatu gehiagotan tradizio honi eusteko asmoa ere agertu zuten. Eta halaxe egin zuten 2025. urteko lehen egunean.

Abenduaren 31ko gauerdiko kanpaihotsen zain izango ziren herritar gehienak, urte zaharra agurtu eta berriari ongi etorria emateko irrikitan. Kanpai hotsen erritmora hamabi mahats aleak irensteko ahalegin ederra egingo zuen batek baino gehiagok.

Nortasun propioa duen udallerria izanik, Usurbilek urtarrilaren lehen eman zion ongi

etorri beroa estreinatu berri dugun urteari. Bestelako kanpandorre eta erlojuen inbidiarik gabe, Salbatore elizako ezkilak joz harrera beroa egin zioten 2025ari, goizeko hamaitaketa kanpai hotsen ostean.

Irudiotan dituzue, trebe asko ezkilak jotzen aritu ziren herrikideak; Iban eta Iñigo Etxaniz eta Iker Muguruza hirukotea. Eskuz, erritmo ezberdine-

tara, ezkil hots ederrak entzun ziren elizan egitekoa zuten meza nagusiaren aurretik.

Artze anaien zidorretik

Urteberri egunean ezkilak joz urte berriari ongi etorria ematea ez zen azken orduko burutazio bat izan. Gogoan izango duzue, Jexux Artze Kultur Elkarteak azaroaren 9an ospaturiko Txalaparta Festa egu-

nari ere modu honetan eman zioten hasiera goizean goiz. Antolatzaileek historikotzat jotzen egun hura, Usurbilgo kultur gintzarentzat. Izan ere, 1996. urtetik galdua zen ohitura berreskuratu zuten modu horretan.

Garai batean, 1980an hasi eta 1996ra arte urteko egun seinalatu Artzetarrek abiarazitako ohitura galdua zena berreskuratu zuten, ohorezko gonbidatuekin, gainera. Ezkilak jotzeko ohitura berreskuratzen lehena, Martin Larrañaga izan zen. Usurbilgo alkate ohia izan zen hain zuzen, 1996an, ohitura hau galtzar zela, ezkilak jotzen ibili zen azkenetakoa. Berarekin batera, ezkilak jotzen aritu ziren azaroko jaialdian Iker Muguruza eta Jurgi Fuentes herrikide eta Jexux Artze K.E.-ko kideak.

Ekitaldi irekia izan zen hura, hainbat herrikideek kanpandorrera igo eta ezkilak jotzeko aukera izan zuten. Urtarrilaren lehen erreplikatu zuten esperientzia. Aurrerantzean, gehiagotan ere ikusi eta entzungo ditugu. Adi, beraz.

EGUERDIKO MEZA NAGUSIAREN AURRETIK SAIO BEREZIA ESKAINI ZUTEN SALBATORE ELIZAKO KANPANDORRETIK



Artze anaiak egindako ekarpena biziberritu nahi dute.



Txalaparta Egunean iragarri bezala, maizago egingo dituzte halako saioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Telefono zenbakia: 647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu hona: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Telefono zenbakia: 628 459 625

BESTELAKOAK

Bufanda handi bat topatu nuen hilaren hasieran Txokoalde inguruan. 656723650 (Jorge).

Ibilgailurako haurrentzako bi aulki salgai (Rparo-Zero. 1 marka), 5 urte arte erabilgarriak. Egoera onean. 125 euro bakoitza. Harremanetarako: 653717186.

Zilarrezko lepoko bat eguzkilore berde batekin galdu nuen abenduaren 1ean, Usurbilgo erdigunean. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke deitzea. Harremanetarako: 625701616

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 09	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 10	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 11	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astearte, 14	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 15	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 16	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 17	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 18	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 19	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Pilota Usurbilen

Urtarrilak 10 ostirala, 17:45

Infantilak 1. Maila, binaka:

Pagazpe 2 - Mundarro 1

Kadeteak 2. Maila, binaka:

Pagazpe -Behar Zana 2

Jubenilak 1. Maila, binaka:

Pagazpe 1 - Pagazpe 2

Urtarrilak 11 larunbata, 11:30

Infantilak 1. Maila, binaka:

Pagazpe - Ilunpe 3

Eskubaloia Oiardon

Urtarrilak 11, larunbata

11:45 Kadete mutilak:

-Usurbil KE A

-Urola E.K. RSA

17:30 Senior mutilak:

-Saizar Usurbil K.E.

-Basauri

19:30 Jubenil mutilak:

-Usurbil KE

-Autopia Talleres OET

ZORION-AGURRAK



Zorionak! Irati Ugartek 7 urte bete zituen urtarrilaren 8an. Muxu handi bana etxeko eta lagunen partez.



Zorionak Xune! Urtarrilaren 8an 10 urte! Muxu asko Haizea, Noa, Xai eta famili guztiaren partez.

HILDAKOAK



Jon Mikel Beristain Izagirre
Abenduaren 18an hil zen,
71 urterekin



Marciana Bachiller Cotrina
Abenduaren 31n hil zen,
85 urterekin



Juana Zapirain Lizaso
Urtarrilaren 5ean hil zen,
87 urterekin.



Mari Carmen Pagola Garin
Abenduaren 27an hil zen,
86 urterekin.



Silvestre Álvarez Ballesteros
Urtarrilaren 5ean hil zen,
86 urterekin.

Boleibola Oiardon

Urtarrilak 11, larunbata

15:30 Jubenil neskek:

Usurbil-Oarso

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 10

USURBIL Helduentzako tertulia filosofikoa

Garazi Aizpuruak gidatuko du. Izen-ematea: doan, usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzaileak: Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak.
18:30-20:00 Potxoenean.

LARUNBATA 11

USURBIL 'Museo irekia bisita gidatua'

Lehengo zein oraingo izen handiko sortzaileen lanak eta ondare aztarnak non nahi izango dituzue begiradaren zain. Prezioa 18 urtetik gora 3,00 euro, 18 urtetik behera doan. Informazioa eta izen-ematea 650usurbilbizi.eus web atarian.
11:00-12:15 Sutegi.

IGANDEA 12

USURBIL Haurrentzako zinea euskaraz: "Boo Kwa eta museoaren lapurreta"

Gizon misteriotsu batek mundu berri honetatik ihes egin eta hiriko museoan dagoen Antzinako Shuko Urrezko Makila preziatua lapurtu du. Book eta bere lagunak abentura eroa bizi izango dute erlikia berreskuratzeko.
17:00 Sutegin.



'Boo Kwa eta museoaren lapurreta' filma proiektatuko dute 17:00etan Sutegin.

Haurrentzako zinea, igande honetan Sutegin

Udalak eta Ziortza gazte elkar-teak abian duten euskarazko zine zikloaren baitan, 'Boo Kwa eta museoaren lapurreta' filma proiektatuko dute igande honetan, urtarrilaren 12an, arratsaldeko 17:00etan Sutegin.

• Sinopsia: "Boo Kwai mutiko bihurria unibertso paralelo batera heldu da ustekabeen bere asmakizunetako bati esker. Gizon misteriotsu batek mundu berri honetatik ihes egin eta hiriko museoan dagoen

Antzinako Shuko Urrezko Makila preziatua lapurtu du. Book eta bere lagunak abentura eroa bizi izango dute erlikia berreskuratzeko. Lortuko dute Urrezko Makila aurkitzeko trabak gainditzea etxera bueltatu ahal izateko?"

Sarrerak eskuragarri

Proiektzioarako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue 3,50 euroren truke, usurbilkultura.eus plataforman.

Joxan Arzte gogoan

Sortzaile usurbildarra zendu zenetik zazpi urte beteko dira egunotan. Urtemuga honen harira, "oroimen eta gorazarre mezuak idazteko Erregistro Liburua eskuragarri egongo da Sutegi udal liburutegian, urtarrilaren 10etik 14ra bitartean".



Mejillon Tigre kolektiboa.

"Hitz esana", poesia emanaldia Emakumeon Etxean

Izenburu hori duen Mejillon Tigre kolektiboaren emanaldia urtarrilaren 18an izango da, arratsaldeko 19:00etan Kalezarko Pelaiocenean kokaturiko Emakumeon Etxean.

Spoken word formatua darabilen poesia-emanaldia da *Hitz Esana*. Ahoz gora esateko idatzitako poesia da; "errepikari erritmoari eta hitzen soinuari arreta berezia ematen dion poesia; entzulearekin zuzen-zuzenean komunikatu nahi duen poesia; gorputzaz ahazten ez den poesia; esan egiten den poesia; momentuan gertatzen den poesia".

Artzi
Partenarietako bat
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
943 362725 • 688 690 361

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867



Goiekoko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

☎ 943 634 536 🌐 www.goieko.com

Praktika onak sustatzen: SORTZEZ BESTEKO TARIFA

- ▶ Bidezko hondakin tasa da, errefusari aplikatzen zaiona: sortzen denaren arabera ordaintzen da.
- ▶ Usurbilgo hondakinen tarifak zati finkoa eta aldakorra ditu: errefusa ateratzen duzun aldi kopuruaren arabera da zati aldakorra.
- ▶ Errefusaren ontzia erabat beteta duzunean baino ez atera, eta dagokion igandean utzi zintzilik: horixe da sortzez besteko tarifa egokia aplikatzeko modua.
- ▶ Gogoan izan: errefusa ontzi grisean atera behar da beti, zure zenbakia duen pegatinarekin.



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus





Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berritzaiek
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

HIPODROMO KALEA BEHEA 10, LASARTE ORIA

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

iruarkaitz@hotmail.com

630 90 02 79 AGINAGA



Antonio URRUZOLA
ARROZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@hotmail.com

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com



ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39